



BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2009/06/29an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2009/11/09an

1. aldaketa:

Lehen xedapen gehigarria eta bigarren xedapen iragankorra eranstea

Onartuta: Udalbatzak 2021/02/22an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021/04/27an

AURKIBIDEA:

I. KAPITULUA.....	2
II. KAPITULUA.....	2
III. KAPITULUA.....	3
IV. KAPITULUA	4
V. KAPITULUA	5
VI. KAPITULUA	6
VII. KAPITULUA	8
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.....	10
LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA	10
BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.....	101
AZKEN XEDAPENAK.....	111
INDARGABETZEKO ERABAKIA	111

BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA

1. artikulua. - Xedea

1. - Ordenantza honen xedea da bide publikoan terrazak eta horien instalazio osagarriak (hala nola, itzalkiak, olanak edo toldoak etab.) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea.

2. - Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terrazatzat jotzen dira ostalaritzako legezko jardueretan (hala nola, taberna, jatetxe, kafetegi, gozotegi) edo aipatutako jardueren antzekoa emateko baimena duten merkatal denda eta antzekoetan, aldi baterako osagarri gisa erabiliko diren mahai, aulki eta behin-behineko instalazio mugikorrak. Jardueraren lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei eman ahal izango zaie horretarako baimena.

3. - Debekatuta dago, berriazko udal baimenik gabe, 1. atalean zehaztu ez diren elementuak jartzea.

2. artikulua.-

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztietarako aplikatu daiteke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titulartasun publikoko zein pribatukoak izan.

II. KAPITULUA

Instalazioak ibilgailu-zirkulazioa duten kaleetako espaloietan

3. artikulua.-

1. - Jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena emateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Okupazioa baimentzeko beharrezkoa izango da oinezkoentzat 2 metroko zabalera izango duen pasoa lagatzeko aukera ematea espaloiak. Metro horiek fatxadatik neurtuko dira.

Udalak kasu bereziak salbuetsi ahal izango ditu, adibide gisa: pasalekua ez izatea,...

b) Mahai eta aulkiek hartzen duten espaloi-zatia ez da inola ere espaloien zabalera osoaren erdia baino handiagoa izango, espaloien azalera 4 metrotik gorakoa denean izan ezik. Lau metrotik gorakoa bada, espaloian fatxadatik neurtuta gutxienez 2 metroko pasabide librea utzi behar da, jarritako hiri-altzarien elementuak horren barnean sartu gabe. Oinezkoentzat errespetatu beharreko

pasabide libre ahal izango da, Udalaren erabaki arrazoitu baten bitartez, oinezkoen joan-etorri handiak hori eskatzen duenean

- c) Mahai eta aulkiek ez dute inola ere galaraziko edo oztopatuko atarien sarbidea, merkatal baxuetako sarbidea, inguruko finketarako sarbidea ezta oinezkoen joan-etorriaren arintasuna ere, eta ezin izango dira jarri oinezkoen pasabideen parean edo jendea ibiltzen den lokaletako larrialdi-irteeren parean.
- d) Instalazioak edo okupazioak luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da izango fatxadaren luzera baino handiagoa, ez bada aldamenekoei kalterik eragiten ez zaiela eta lizentzia-eskaerarekin batera aldamenekoen baimen idatzia aurkezten dela.
Ez da baimen horren premiarik izango espaloiak 4-5 metro, libre utzi eta hortik aurrera eskatutako okupaziorako aukera ematen duenean. Udalak erabakiko du bakoitzean aplikatuko den zabalera.
- e) Irizpide guztiak kontuan izan eta gehienez ere 10 mahai eta mahai bakoitzeko 4 aulki dira gehienez ere baimenduko direnak merkatal jardueraren titular bakoitzeko.

III. KAPITULUA

Instalazioak oinezkoen esparruetan, plazetan eta toki libre berezietan

4. artikulua – Oinezkoen kaleak.

- 1. - Oinezkoen eremu edo kaleak nagusiki jendarteko topagune izango dira. Horregatik, eremu horietan ez da mahai-aulkiak jartzeko baimenik emango, ez bada Udalak adierazitako zabalerekin oinezkoen pasabiderako aukera ematen duela.
- 2. - Oinezkoen eremuetan mahai-aulkiak ezin izango dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen lekuetan.

5. artikulua.- Plazak eta eremu libre bereziak.

- 1. - Eremu horietan terrazak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera erabakiko dira, orokorrean aplikagarri izango diren muga hauek kontuan izanda:

a).- Lorategi eremuak, jolas-esparruak eta atsedenlekuak errespetatuko dira. Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.

b).- Eremu horietan toki publikoa erabiltzeko lizentzia eskatu ahal izango duten bakarrak izango dira 1. artikuluan zehaztutako lokalen titularrak, baldin eta horien establezimenduaren fatxadaren aurrealdeak eremu horietara ematen badu.

c).- Baimendutako mahaitxoek hartzen duten eremuak gehienez ere Udalak baimendutako azalera izango du, lorategi esparruak, jolas-eremuak eta beste hiri-altzarien eremua kenduta. Dena den, Udalak kasu bakoitzean erabaki ahal izango du okupatu daitekeen gehiengo azalera eta gunehorietan nola eta zein

modutan jarri beharko diren mahai-aulkiak, guzti hori kapitulu honetan arautzen diren plazatzoen edo eremu libre berezien erabilera publikoa bermatzeko asmoz.

d).- Debekatuta dago pasabide gisa zehaztutako tokietan jartzea.

e).-Eremu bera erabiltzeko eskabide bat baino gehiago badaude, establezimenduek hartuko dituzten azaleren banaketa udalak erabakitakoa izango da.

2. - Okupazioa ezin izango da izan Udalak baimendutako azalerakoa baino handiagoa.

3. - Irizpide guziak kontuan izan eta gehienez ere 10 mahai eta mahai bakoitzeko 4 aulki dira gehienez ere baimenduko direnak merkatal jardueraren titular bakoitzeko.

IV. KAPITULUA

Baldintza teknikoak eta publizitatekoak

6. artikulua.-

Baimendutako eremua besterik ez da okupatuko.

Banaketa edo kalkulu hau, udalak onartutako erizpideei jarraituz, Udaltzaingoak egingo du, horretarako jasoko duen txostenean, eta horrenbestez, establezimendu bakoitzak jar ditzakeen mahai eta aulkien kopurua jasoko dituen txostena aurkeztuko du.

7. artikulua.-

1. Mahai-aulkiek okupatzen duten eremua egun osoan garbitasun eta higiene egoera egokian edukitzeko betebeharra du baimenaren titularrak. Erratza pasa eta garbiketa egin beharko du behar den guztietan.

2. Horretaz gain, eguneko jarduna bukatzean altzari-elementuak establezimenduaren barrura sartu beharko ditu, Udalak espresuki kontrakoa onartzen ez badio, eta mahaiek hartzen duten eremua garbitasun egoera ezin hobean utzi.

3. Debekatuta dago guztiz ainguraketa sistemak erabiltzea.

4. Baimendutako instalazioak bide publikoan okupatzen duen gunean edota hurbileko hiri-osagaietan kalteak edo akatsak eragin dituela ikusten bada, Udalak kalte horiek konpontzeko dagokion diru-zenbateko osoa exijituko du.

5. Era berean, ostalaritzako jardueraren titularrak jarduera uzten badu, bide publikoa aurreko egoeran laga beharko du.

8. artikulua.-

Eguzkitakoak, itzalkiak, olana edo toldoak eta alboetako babesak, aurrez baimendutakoak eta publizitate gabekoak besterik ezingo dira jarri.

9. artikulua.-

1. - Hiri-altzariei (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak) nolabaiteko harmonia eta estetika emateko, ahal den neurrian ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- **Materialak:** Batez ere aluminioa erabiliko da, eta beste zenbait materialekin batera jarri ahal izango da, hala nola, egur tratatua, biniloa, etab. Mahai eta aulkien egitura ezingo da inolaz ere plastikozkoa izan.

- **Koloreak:** Tonu neutroak erabili beharko dira (zuria, krema, metalizatua...). Ezin dira kolore deigarriak eta/edo bizi-biziak erabili. Ondorio hauetarako, interesdunak zalantzaren bat badu ea kolore edo material zehatz bat indarrean dagoen araudiaren arabera egokia izango ote den, udal zerbitzu teknikoetara jotzeko aukera izango du, baimen-eskabidea egin aurretik alderdi horiek argitzeko.

2. - Berariaz debekatzen dira azaldutako materialak edo baldintzak betetzen ez dituzten publizitadedun terraza estandarrak.

3. - Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, olanak, etab.) zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti.

4. - Eguzkitakoak: Mahai bakoitzerako banakako eguzkitakoak ezingo dira lurrean ainguratu. Mahai bat baino gehiago estaltzen dituzten eguzkitako eta olanak jartzeko, berariazko lizentzia eskatu beharko da eta ezingo dira lurrean ainguratu.

V. KAPITULUA

Ordutegiak

10. artikulua.-

Debekatuta dago auzokoen lasaitasuna galaraztea zarata, oihu edo bestelako eragozpenen bidez, batez ere 22:00etatik aurrera. Nolanahi ere, debekatuta dago kanpoan megafonia jartzea.

11. artikulua.-

1. - Eremua erabili ahal izateko ordutegia honakoa izango da:

Instalazioa jarri

- 11:00etatik aurrera, garbiketa-lanak oztopatu gabe.

Instalazioa erretiratu

Ekainaren 15etik irailaren 15era:

Igandetik ostegunera: 24:00

Ostiral, larunbat eta jai-bezperak: 02:00

Urteko gainontzeko egunak:

Igandetik ostegunera: 23:00

Ostiral, larunbat eta jai-bezperak: 24:30

2. –Instalazioa erretiratzeko ordua iristen denerako material guztia erretiratuta eta okupatutako gunea garbi utzi beharko du.

12. artikulua.-

Toki publikoa okupatzen duten mahaietan bazkari eta/edo afarien zerbitzua ematea nahi dutenek espresuki eskaera egin beharko dute bide publikoan terrazak jartzeko baimen eskaerarekin batera. Udalak kasuan kasu erabakiko du baimena eman edo ez.

Bazkari-zerbitzua baimentzen den kasuetan, erabilitako eremua egunero garbitu beharko da zerbitzuak sortutako zikinkeria ken dezaketen produktuekin.

VI. KAPITULUA

Baimena emateko baldintzak.

13. artikulua.-

Bide publikoan terrazak jartzeko lizentzien iraupena gutxienez hilabete naturalekoa izango da, eta baimendutako epealdia bukatutakoan automatikoki bertan behera gelditzen dira lizentziok.

14. artikulua.-

1. - Terrazak eta elementu osagarriak jartzeko, aurrez udal baimena edo lizentzia eskuratu behar da.

2. - Horretarako, interesdunak udaletxeko bulegoetan jaso ahal izango duen eskabide normalizatua aurkeztu beharko du, eta horrekin batera ondoko establezimenduen titularren baimena, baldin eta egin nahi den instalazioak ondoko establezimenduen fatxada ere hartzen badu.

3. - Lizentzia-eskabidearekin batera (edo lizentziaren aldaketa garrantzitsu bat egitean, hala nola, mahaien kopurua, kokalekua, etab.), okupazioaren azterlan bat ere aurkeztu beharko da. Horrek, gutxienez, puntu hauek azalduko ditu:

a) Lokalaren kokalekua zehaztuko da, instalazioak hartuko duen azalera, fatxadaren luzera eta ondorioz sortuko diren pasabideen zabalera adieraziz.

BERGARAKO UDALA

Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza

Horretaz gain, dagoen edozein oztopo finkoren berri eman beharko du (trafiko seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, hiri-altzariak, etab.).

b).- Planoa aurkeztuko da, instalazioak hartzen duen bide publikoaren zatian mahai-aulkiak nola banatuko diren azaltzeko.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da bakarrik Ordenantza hau indarrean jarri ondoren egiten den lehen lizentzia eskaerarekin edo lizentziaren aldaketa garrantzitsu bat egiteko baimen-eskaerarekin (mahai-kopurua, kokalekua, etab.).

4. - Baimenaren edukian aldaketa garrantzitsua eragiten duten gainontzeko kasuetan, interesduna behartuta egongo da baimena eskatzera artikuluko honen 3. atalean xedatutakoaren arabera.

15. artikulua.-

1. - Lizentziak beti jabetza-eskubideari kalterik egin gabe eta hirugarrenei eragozpenik sorrarazi gabe emandakotzat joko dira. Eta ezingo da erabili lizentzia hori onuradunak bere jarduerak betetzerakoan eragin lezakeen erantzukizun zibil edo penala kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, lizentziak ez du titularra beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik salbuesten.

2. - Lizentziaren dokumentuan hainbat atalei buruzko baldintzak ezarriko dira: instalazioaren baldintzak, hartu beharreko azalera, baimenaren iraupena, eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko berezitasunak.

3. - Lizentziak prekario izaera izango du beti eta, trafikoko, urbanizazioko, udalak berak antolatu edo baimendutako beste ekintzetarako edo interes orokorreko beste edozein gorabeherak hala eskatzen duenean, udal agintariek baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango dute, modu arrazoituan; horrenbestez, partikularrak agindutakoa bere kontura egin beharko du, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

4. - Ordenantza honek arautzen dituen lurzoru publikoaren erabilera eta instalazioa direla-eta, toki publikoan edo hirugarrenei kalterik eraginez gero, lizentziaren titularra behartuta dago kalte guztiak konpontzera.

16. artikulua.-

1. - Baimenek gutxienez hilabete natural bat eta gehienez urte natural baten iraupena izango dute. Epe hori bukatzean, interesdunek baimena berritzeko eskatu beharko dute.

2. - Baimenaren indarraldia bukatutakoan, lizentziaren titularrak eta, hala badagokio, dagokion establezimenduarenak, instalazio guztia kendu eta toki publikoa aurrez zegoen bezala utzi beharko du.

3. - Hurrengo denboraldietarako lizentzia berritzea eskatu nahi bada, eta lizentzian aldaketa handirik egin behar ez bada, nahikoa izango da eskabidearekin batera ondoko establezimenduen adostasuna berritzen duen dokumentua aurkeztea, baldin eta lizentzia eragin zuten egoerako baldintzak aldatu ez badira.

Lizentzia berritzeko eskaerak automatikoki onartutzat joko dira, baldin eta aurreko idatzian aipatutako dokumentazioarekin batera okupazioari dagozkion tasak eta ordainarazpenak ordaindu izanaren agiria aurkezten bada; orduetik aurrera, ordaintzen diren unetik aurrera, joko dira onartutzat, beti ere Udalak eskatutako baimena ez ematea erabaki eta 15 eguneko epean jakinarazten ez badio eskatzaileari.

17. artikulua.-

1. - Izaera orokorreko edo ordenantza honetatik eratorritako betebeharrez gain, instalazioaren titularra behartuta dago baimentzen den okupazioko lurra, instalazioa bera eta elementu osagarriak garbitasun, segurtasun eta apaintasun egoera ezin hobean edukitzera; eta horretarako, beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak, etab.

2. - Instalazioaren titularrak, ordenantza fiskaletan ezarritako eran, berari dagozkion tasa eta ordainarazpenen zenbatekoak ordainduko dizkio Udalari. Ordainketa lurzoru publikoa okupatu aurretik egin beharko da eta auto-likidazio erregimena erabiliz egingo da.

Baimenik ematen ez bada, ordaindutakoa itzuli egingo da. Hau horrela, baimen-eskaera izapidetzen hasteko, okupazioari dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da eskaera aurkezten denean ezarriko den epean. Ordainduko ez balu, interesdunak eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da eta espedientea artxibatu egingo da.

VII. KAPITULUA

Zigor-araubidea

18. artikulua.- Lizentziarik gabeko instalazioak.

1. - Lizentziarik gabe bide publikoan jarritako terrazak udal agintariak kendu ahal izango dituzte berehala eta kautelaz, eta baita dagokien biltegian utzi ere. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko.

2. - Hemengo diziplina-ondorioetarako, lizentziaren iraunaldia bukatutakoan terrazak ez kentzea udal baimenik ez izatearen parekotzat joko da.

19. artikulua.- Arau-haustek.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-haustek sailkatzeko orduan, arinak eta larriak izan daitezke.

1. - Arau-hauste arintzat joko dira honakoak:

a).- Terrazak ezarri den ordutegiaz kanpo jartzea.

b).- Baimendutako elementu-kopurua baino gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak edo bestelako elementu osagarriak) edo baimendutako baino azalera handiagoa hartzea.

c).- Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.

d).- Okupazio-eremua apaintasun, segurtasun eta garbitasun egoera egokian ez edukitzea.

e).- Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

2. - Arau-hauste larritzat joko dira:

a).- Terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea.

b).- 18. artikuluan adierazitakoak (Ordenantza honi loturik dauden elementuak 11. artikuluan ezarritako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.)

c).- Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean, hiru arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

20. artikulua.- Zigorrak.

1. - Ordenantza honetako arau-haustek direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

a.- Arau-hauste arinak: 90 eta 300 euro arteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada, eta/edo aurrerantzean establezimendua ez izatea gai ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, bi hilabeteko epeaz.

b.- Arau-hauste larriak: 301 eta 900 euro arteko isuna eta/edo aurrerantzean establezimendua ez izatea gai ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 2 urte arteko epeaz, gertakarien larritasunaren arabera.

c.- 19.2 a) eta 19.1 b) artikuluetan jasotako arau-hauste larriak, Zergen Foru Arau Orokorraren arabera zigortuko dira, okupazioarengatik dagozkion tasak ordaindu behar izateari kalterik egin gabe.

2. - Okupazioa gerora legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal aginduak betetzeari uko egin ez bazaio, zigorra soilik ekonomikoa izatera murrizt daiteke.

3. - Ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak urtero eguneratuko dira automatikoki, Estatuko kontsumoko prezioen indizearen arabera, aurreko urteko zigor zenbatekoari aplikatuz.

21. artikulua.- Zigor-espedientea.

Egokitako zigorrak ezartzeko, ezinbestekoa izango da aurrez dagokion espediente bideratzea, eta espediente hori otsailaren 20ko 2/1998 Legean (EAEko Herri

Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoan) xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

22. artikulua.- Ordezko betearazpena.

1. - Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu horretarako ezarritako epean, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio ordezko betearazpenaz, eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak hortik eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Bateratuaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikulua.

2.- Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere sei hilabetez egongo dira biltegian. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Behar bezala justifikatutako salbuespeneko inguruabarrak daudenean (osasun-arlokoak, obrak, udalerrian salbuespeneko jarduera puntual batzuk antolatzeakoak, segurtasun-arlokoak edo antzekoak), ordenantza honetan aipatzen diren jardueren enpresa titularrei terraza jartzeko aldi baterako baimena eman ahal izango zaie aurreko artikuluetan jasotako baldintzaren bat betetzetik salbuetsita edo ordenantzan ezarritako baldintzak aldatuta.

Xedapen gehigarri honetan zehaztutako baimenak lortzeko prozedura honako hau izango da: Interesdunak eskaera egingo du gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin, eta gero alkateak ebazpena emango du. Ebazpenean, bidezkoa bada, salbuespen-egoera justifikatuko da, eta baimena emateko salbuespeneko baldintzez gain, baimenaren iraupena ere zehaztuko da. Epea bukatutakoan, automatikoki bertan behera geldituko da baimena, erabaki baten premiarik gabe, Ebazpenean berariaz ezarri ez den guztirako, ordenantza honen aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Alkatetzaren ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordenantza honetako VII. kapituluaren araututako zigor-araubidea aplikatuko da.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Terrrazak jartzeko emandako baimenak pixkanaka ordenantza honetan ezarritako baldintza tekniko eta publizitate-baldintzetara egokitzeko, 2010eko abenduaren 31 arteko egokitze-aldia ezartzen da. Egun horretatik aurrera, terrrazak osatzen dituzten osagai guztiek ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak eta publizitatekoak bete beharko dituzte.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Kontuan hartuta covid-ak eragindako pandemiari aurre egiteko komenigarria izan daitekeela terrazak edo bertako altzariak egokitzeko inbertsioak egitea, eta soil-soilik inbertsio horiek udalak ezarritako irizpideak errespetatuz egiten badira, baimendutako materiala bi urteko epean erabili ahal izango da –udalak irizpideak finkatzen dituenetik kontaktzen hasita–, salbu eta ibilgailuak aparkatzeko guneak okupatzeko egin badira.

AZKEN XEDAPENAK

1. - Ordenantza hau ondorioak izaten hasiko da bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost lanegunetara.

2. - Udal agintariari berariazko baimena ematen zaio lizentziak eman ahal izateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, betiere administrazio prozedura bateratuari buruzko legedian jasotako printzipioen arabera.

INDARGABETZEKO ERABAKIA

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu egingo dira.

Halaber espresuki indargabetzen da Udalbatzak 1993ko uztailaren 26an onartutako *Lurzoru publikoa mahai eta aulkiekin okupatzea eta erabiltzea arautzen duen ordenantza* (GAOan 1993/8/23an argitaratua eta akats zuzenketa 1993/9/7an GAOan argitaratua) eta Udalbatzak 1997ko urriaren 28an onartutako aldaketa (1997/10/28ko GAOan argitaratua eta aldaketa horren akats zuzenketa GAOan 1997/11/13an argitaratua)